

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko otsailaren 10a. IX. urtea. 2.358. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



→ **Azken agurra eman diote Ondarزابali.** Une hunkigarriak bizitu ziren atzo, Tolosako kanposantuan, Asentxio Ondarزابal euskaltzaleari azken agurra ematerakoan. Euskalgintzaren aurpegi ezagunak bildu ziren ekitaldian. 03

Gartzia Artetxek etzi zuzenduko du azken aldiz musika banda

Ohiko inauteri kontzertua izango da Tolosako Berdura plazan 12:15ean, eta ekitaldia 29 urtez bandako zuzendari izandakoa omentzeko baliatuko dute bere kideek 02



Luis Mari Gartzia Artetxe lazko inauteri kontzertuan. JAVIERORTIZ

Neskek egingo dute dantza bihar, Dantza Soka Egunean

Iaz mutilen txanda izan zen, eta Anoetako plazan egin zuten dantza; aurten neskek ariko dira 12:30ean, baina lehenago plazan elkartu eta baserrietara joango dira kalejiran 06

Torturaren Aurkako Egunaren harira, ekitaldi ugari eskualdean

Anoetan gaur, dokumental bat eskainiko dute; Ibarra, Villabona eta Zizurkilan ere mobilizazioak izango dira 07

Goñi pilotariak Tolosako eta Asteasuko bi gazte izango ditu aurkari

Bihar 18:00etatik aurrera Ibarra, pilota jaialdia izango da; sarrerak 5 eurotan erosi daitezke 07

Babarrunaren Kofradiak egitarau oparoa antolatu du etzirako

Tolosako elkarteak kofrade berriak izendatuko ditu, tartean Asier Izagirre eta San Bernardo taldea 04



Prezio oso bereziak

Galtzerdiak 1€ eta 2€

Poloak 11€

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1962
LENTZERIA

Joxemi Saizar/Imanol Garcia

Datorren igandean, urteroko inauteri kontzertuan, Tolosako Musika Bandak bere zuzendari Luis Mari Gartzia Artetxe omenduko du, erretiroa iritsi eta zuzenduko duen azken kontzertua izango dela aprobetxatuz. Gartzia Artetxerentzat, noski, momentu berezi eta hunkigarria izango da etzikoa.

Emanaldia 12:15ean hasiko da Berdura plazan. Lehendabizi Udal Txistulari Bandak bere errepertorioa eskainiko du eta ondoren, Tolosako musika bandak ohiko inauteri doinuak interpretatuko ditu. Entzule asko eta arrakasta handia duen kontzertu berezi honetan izango da bandako zuzendariaren agurra, jubilatzeo adina iritsi zaiola aprobetxatuz. Kontzertuaren bukaeran izango da omenaldi ekitaldia.

Txikitatik musika munduan

Luis Mari Gartzia Artetxe Villabonan jaio zen 1947. urtean.

Bederatzi urterekin etorri zen Tolosara bizitzera eta solfeo ikasketak hasi zituen Ignacio Mokoroa eta Salustiano Balza maisuekin.

Bere aita Robustiano ere musikaria izan zen, baxua joz Villabonako bandan eta hainbat txarangatan. Bere anaia, Jose Javier, ere baxua, tronboia eta helikioa Oria, Poca Tripa eta beste hainbat txarangatan jo du, eta abeslari gisa aritu da Leidor, Abeslari Lagunak, Orfeoia eta parrokiako abesba-



Gartzia Artetxe, banda zuzentzen, iazko inauteri kontzertuan. Etzi errepikatuko da irudia, azken aldiz. JAVIER ORTIZ

Luis Mari Gartzia azken aldiz zuzenduko du igandean Tolosako Musika Banda, ohiko inauteri kontzertuan; 29 urtetan ondoan izan dituen hainbat lagunak egindako lana nabarmendu dute.

Emanaldi hunkigarria

tzan. Tiple gisa ere hasi zen abes-ten parrokiako abesbatzan.

14 urte zituela Tolosako Udal Musika Bandan sartu zen, bere klarinete irakasle zen Felipe Bernad zuzendaria hil eta Manuel Valmaseda zuzendariordea jarri

zenez zuzendari bezala. Klarinete karrera Donostiako Kontserbatorioan burutu zuen Lopez Hor- tas maisuarekin, nota bikaina lortuz. Valmaseda erretiratu zenean, Jose Antonio Ruiz Bona sartu zen zuzendari gisa eta Cefe-

rino Rico zen zuzendariordea. Hau erretiratu zenean, 1982an, bera izendatu zuten bandako zuzendariorde, azterketa baten ondoren.

Handik urtebetera Ruiz Bona hil zen eta bera jarri zen zuzenda-

ri, lehen kontzertua 1983ko sanjoanetan zuzenduz. Zuzendaritza ikasteko ikastaro batzuk egin zituen hemen eta Valentzian, Enrique Garcia Asensio eta beste irakasle batzuekin.

Entzule asko eta arrakasta handia duen kontzertuan jasoko du Gartzia omenaldia

Hainbat ekitaldi berezi

Musika bandako zuzendaria izan den epean hainbat ekitaldi berezi zuzendu behar izan ditu: kontzertu bereziak (txistulari, abesbatza eta dantzariekin, Tolosaren 750. urteurrenekoa), diskoen grabazioa (Bideoaldikoa, inauterietako, 750 urteurrenekoa), haurrentzako kontzertuak (pailazoekin, dultzainari eta erraldoiekin), emanaldiak kanpoan (Graus, TVE, Euskal Herriko beste herri batzuetan), banden alardeak...

Irakasle lanak

Udal musika eskolako klarinete eta saxofoi irakaslea izan da 1978tik 2007an erretiratu arte eta bere ikasle asko gaur egun bandako kideak dira. Urte batzuetan zehar musika eskolako zuzendaria ere izan zen.

Bandaz aparte, Poca Tripa txarangari inauterietan eta Los Pocker, Los Zafiro eta Oinarr berbe- na taldeetan jo izan du klarineteko eta saxofoia. Eta zuzendari gisa aritu da parrokiako koroan, zein Abeslari Lagunak eta Hodeiertz abesbatzetan.

Mariaje Rekondo

Udal Musika Eskolako zuzendaria

Mariaje Rekondo, orain 20 urte inguru, Udal Musika Eskolan lanean hasi zenean, bertako zuzendaria zen Luis Mari Gartzia. «Orduan musika bandako zuzendaria eta musika eskolako berdina ziren. Gero hori aldatu egin zen», dio Rekondok. «Harreman oso ona izan dut berearekin. Hamabost urtetan lankide izan gara». Musika eskolaren mundua «oso ondo» ezagutzen duela dio, eta «irakasle berriei asko irakatsi digu». Bandako zuzendari bezala «oso estimatua» izan dela dio Rekondok, «eta horrek zerbat

esan nahi du». Gartziazen ikasle askok aurrera jarraitu dute musika ikasten eta zenbait bandako kide dira. «Irakasleek oinarri bat jartzen dugu eta gero ikasleak musikarekin aurrera jarraitzea ilusioa egiten du».

Iñaki Letamendia

Udal Txistulari Bandako zuzendaria

Luis Mari Gartzia Artetxe zuzendari izan aurretik ere harremana bazuen Letamendia berarekin: «Musika bandan jotzen zuen berak, eta ni txistulari bandan nengoen. Harreman handia izan dut berarekin. Ia 30 urte pasa ditugu elkarrekin, eta mila bat aldiz jo dugu batera». Zu-

zuzendari bezala, «maila nahiko askok aurrera jarraitu dute Letamendia. «Musika bandan giro ona izan da eta hori lortzea ez da erraza 50 laguneko talde batean». Bestalde, bandaren musika gaurkotu egin duela gaineratu egin du. «Erretiroa gozatu dezala osasunarekin. Halere, ez da oso urrutira joango. Ziurrenik musika banda gertutik jarraituko du».

Ander Letamendia

Parrokiko musika kaperako zuzendari ohia

Ander Letamendia baino lehen, Luis Mari Gartzia izan zen Santa Maria parrokiko musika kaperako zuzendaria. Txikitatik dute harremana: «Argazki batzuk badaude, biak oso gazte, berak klarinetea joz eta nik biolina, prozesioan elkarrekin jotzen». Gartzia «oso langilea» izan dela dio Larrañagak: «Nahiz eta gazte izan eta ardura handia hartu, oso ondo irau du. Ruiz Bonak bandari eman zion maila oso ondo mantendu du, eta nire ustez Tolosako Musika Banda erreferente bat da».

Isidro Larrañaga

Akordeoi jolea

Isidro Larrañagak eta Luis Mari Gartzia batera jo zuten ezkon-

tzetan eta erromerietan. Larrañagak akordeoia jotzen zuen eta Gartzia saxofoia. «Pertsona jatorra da, atsegina», dio Larrañagak. «Asko jotzen genuen Krispillo eta Colmenerorekin batera. Gero, bandako zuzendari bezala hasi zenean, utzi egin zuen taldea». Zeregin berrira «ilusioz» hartu zuela dio Larrañagak. «Zaila da talde bat zuzentzea, eta ondo ikusi dut lan horretan».

Mikel Gotzon Telleria

Tolosako Orfeoia lehendakari ohia

«Guretzako oso ezaguna da», dio Mikel Gotzon Telleriak. «Hainbat lan egin ditugu batera, Abeslari Lagunak taldearekin eta Tolosako Orfeoiarekin». Tolosari buruzko argitalpenetan laguntza eman diola nabarmendu du Telleriak. «Oso estimatua da zuzendari bezala, eta gainera musika bandak izan zuten aldaketa egoera berrira moldatzea tokatu zaiou».

Enrike Azurza

Hodeiertz abesbatzaren zuzendari ohia

Hodeiertz abesbatzaren sorreran lagundu zuela azpimarratu du Enrike Azurzak. «Beti izan du lotura abesbatza munduarekin eta Tolosako Lehiaketaren za-

lea da». Harreman «oso ona» izan dutela dio, eta askotan izan dela Hodeiertzen kontzertuetan, baita beraie zuzendu festetako zenbait emanaldietan. «Oso lan ona egin du musika bandan. Asko gaurkotu du eta jende gazte asko dago bertan».

Enrike Ugarte

Orkestra zuzendaria eta konpositore

Ugartek azaldu duenez, Udal Musika Bandan jo zuen Gartzia- rekin batera, Ruiz Bonaren zuzendaritzapean, «baina Alemaniara joaterakoan gure harremana kontzerturen baten topo egitera murriztu zen». «Ez dugu egitasmoarik batera egin, eta beraz, ez dut musika harreman handiegirik izan, baina badakit bandako musikari onenatariko bat izan dela», gaineratu du musikariak.

Ugartek Gartzia omenaldi bikaina egitea espero du, izan ere «Tolosako Musika Bandaren zuzendari izatea garrantzitsua da, oraineko eta etorkizuneko musikarien formakuntzan erantzukizun handia baitu zuzendariak. Tolosako musika kulturaren tradizioa mantentzeko ere. Hoberena opa diot, eta egindako lana eskertzen diot, bihotzez», azaldu du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Euskalgintzaren alde lan isila egin zuen»

Tolosako hilerrian egin diote omenaldi ekitaldia herenegun hil zen Asentxio Ondarzabali

Irigo Terradillos

Hunkigarria izan zen Lizardiko lagunek atzo arratsaldean Tolosako hilerrian Asentxio Ondarzabali eginiko omenaldia. Bere senitartekoak, lagunak eta lankideak han ziren, eta tartean euskalgintzaren aurpegi ezagunak, hala nola, Joxe Mari Iturralde, Inaxio Mujika Iraola, Juan Garcia, Antxon Olariaga, Xalbador Garmendia edota Andu Lertxundi.

Agurra dantzatu ostean, bere omenezko bertsoak entzun ahal izan ziren, eta ondoren, Inaxio Agirre Lizardi elkarteko kideak izan zituen Ondarzabalen oroimenezko hitzak. Euskalgintzaren alorrean «une zail haietan eginiko lana» goraipatu nahi izan zuen Agirrek.

Joxe Mari Iturralde idazle tolosarrak «lagun handi» zuen On-

darzabal: «Aspaldian ezagutu genuen elkar, eta ez dira bost egun izango elkarrekin solasean aritu ginela». Iturraldek euskara eta euskal kulturaren alde «garai ilun haietan inork egiten ez zue-nean berak egin zuen lan esker-ga» nabarmendu du. «Lan isila egin zuen, askotan musutruk egin-a, gainera».

«Sortzaileekiko lilura»

Lan horretan bidelagun izan zue-netako bat izan zen Andu Lertxundi. Urte asko dira idazle oriotarrak eta Ondarzabalek elkar ezagutu zutela. «1972an ezagutu nuen Tolosan bere ekimenez antolatu zuten kultur hamabostaldiaren harira; berak Tolosan abian jarri zuen ekimen hori, gero Euskal Herri osora hedatuko zen», gogoratzen du Lertxundik. Urte hartatik, hainbat proiektutan egin zuten bat biek, eta horien artean azpimarragarriena Erein argitaletxearen sorrera. Lertxundik Ondarzabalek «sortzaileekiko zuen lilura» nabarmendu zuen. «Margolariak, eskulturgileak, idazleak... asko lagundu zituen; ikasketarik ez izateak or-

dezkatzen zuen, nolabait, egiten zuen lan hori».

Xalbador Garmendia idazleak ere ez zuen hutsik egin nahi izan atzo eginiko omenaldian. Bere esanetan, Asentxio Ondarzabal «oso pertsona zintzoa, leiala eta euskaltzalea» zen. «Nik banuen bere berri euskararen eta euskal kulturaren alde egin zuen lanarengatik, baina orain gutxi arte ez nuen harremanik izan berarekin», dio zaldibiarrek.

«Kezka handiak zituen»

Bertan egotetik ez, baina egon nahiko luke Juan Garmendia Larrañagak. Etnologo eta historialari tolosarrak Oiarzunen ezagutu zuen 1960. urtean Ondarzabal: «Manuel Lekuonaren omenaldi batean ezagutu genuen elkar, eta ordutik adiskide onak izan gara, eta hainbat ekitalditan egiten genuen topo». Aurrerago euren harremana sendotu egingo zen, Laskorain ikastola sortu zutenen taldean baitziren biak. «Francoren garaia zen, eta bilera bat leku batean, bestea beste batean, eta horrela ibili beharra izaten genuen. Asentxio garai hartan bizi ge-



Agurra dantzatu zuten lehendabizi hilerriaren kanpoaldean. ASIERIMAZ

nuen giroak asko kezkatzen zuen, eta horregatik zegoen hamar lagunek osatzen genuen ikastolako sortzaileen taldean».

Herenegun Asentxio Ondarzabalen heriotzaren berri izan zue-nean Jone Urteaga Tolosako ikastolaren zuzendariari Auritze bere alaba eta ikastolako irakaslea etorri zitzaion burura. «Haizea gure ikaslearen aitona ere bazen, eta horren aurretik ikastolako guraso izan zen; bere emazte Milarekin batera, alabak ikastolara ekarri baitzituen». Guraso izan aurretik, baina, Laskoraingo sortzaile izan zen, eta horregatik, ikastolak bere izaera zor diola dio Urteagak. «Asentxio eta bere ga-

raiko euskaltzaleek jarri zituzten gure ikastolaren oinarriak eta proiektuaren nortasunaren ezagutza, eta ondorengoek haien ereduari jarraituz ikastolaren proiektua gauzatu, eta aurrera eramaten saiatu gara». Hori dela eta, ikastolaren zuzendariaren arabera, «Asentxiok garai batean izan zuen ametsak bat beterik ikusi du, ikastola ikusi baitu». Urteagak Juan Garmendia Larrañagarekin bat egiten du, Ondarzabalek «kezka handiak» zituela esatean: «Euskararen munduan kezka handiak zituen, batez ere, Nafarroa bezalako lekuetan euskara zabaltzeko lan handia egin beharra dagoelako».

↓ Soslaia

Asentxio Ondarzabal Sortzaileen laguntzaile

Asko kezkatzen zuen Asentxio Ondarzabal (Hernani, 1934) euskalgintzaren egoerak, eta kezka horrek bultzatuta Laskorain ikastolaren, Erein argitaletxearen, Lizardi elkartearen eta hainbat kultur ekimenen sorreran hartu zuen parte.

Juan Garmendia Larrañaga

eta Antonio Maria Labaienekin batera Tolosako Laskorain ikastolako sorrera antolatzeke lane-tan parte hartu zuen. Ondoren, Tolosan, 70eko hamarkadan, sortu zen euskalgintzaren eta kulturgintzaren mugimenduko partaide izan zen. Lizardi elkartearen sorreran ere izan zen Ondarzabal, eta kultur ekimenak,

hamabostaldiak kasu, sortu zituen. Gero gisa horretako ekimenak Euskal Herri osora hedatuko ziren.

Ekitaldi horien antolaketa artista ugari ezagutu zituen. Julen Lizundia, Anjel Lertxundi eta Xabier Leterekin batera, Erein argitaletxea sortu zuen ondoren. Hasieran lantegi batean egiten zuen lan argitaletxean laguntzarekin batera, baina, gero lantegia utzi eta argitaletxeke lanera mugatu zen.

Sortzaileekiko, eta bereziki, idazleekiko lilura sentitzen

zuen, eta eurenganako harreman pertsonala asko lantzen zuen. Era berean, idazle askori lagundu zien liburua argitaratzen. Berak sinatutako liburu bakarra dago, *Ernioko Ziripot* jolas egiteko ipuinak, hain zuzen. Olariagaren irudiek lagundurik, Ernio mendiaren magalean bizi den gizon handi baten ibilera harrigarriak kontatzen ditu. Gaztetxoentzako Ziripot sail berriaren lehen alea izan zen.

1999. urtean hartu zuen erretiroa. Atzoko egunez 78 urte beteko zituen.



Asentxio Ondarzabal. A. CANELLADA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

→ **Laburrak**

Binakako Aizkolari Txapelketa, Amazabalen

LEITZA » Amazabal frontoian Eusko Label Binakako Aizkolari Txapelketako jardunaldia jokatuko dute, bihar, 19:30ean hasita. Zilarrezko mailan, Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano leitzarrek Jon Irazu zizurkildararren eta Legorretako Jesus Mari Lasaren aurka ariko dira. Gaztetxoan mailan, Julen Olano leitzarra eta Otsagiko Iker Vicente bikotea Eneko Saralegi leitzarra eta Barakaldoko Julen Larrea III.aren aurka ariko da.

Gizonezkoen 600 kiloko sokatira finala, bihar

IBARRA » Goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren zazpigarren saioa jokatuko da, bihar, Berriozarren (Nafarroa Garaia). Udai kiroldegiko pilotalekuan izango da, eta 17:00etan hasiko da. Bertan, jokoan izango dira gizonezkoen 600 kiloko finala eta emakumezkoen 500 kiloko bigarren jardunaldia. Bai batean zein bestean, Ibarako taldeek parte hartuko dute.

Pilota partida ugari, asteburuan, eskualdean

PILOTA » Hainbat pilota partida ikusi ahalko dira asteburuan eskualdeko pilotalekuetan. Euskadiko Txapelketaren barruan, Beotibarren bost partida jokatuko dituzte Aurrera Saiazeko pilotariak, bihar. Horiétako hiru 10:00etan hasiko den jaialdian eta beste bi 19:00etan hasiko den jaialdian. Udaberri Txapelketan, Aurrera Saiazekoek bi partida dituzte gaur, Bidanian, 19:00etan hasiko den jaialdian, eta beste bi bihar, leku berdinean, 17:00etan hasitako jaialdian. Bestalde, Intxurre elkarteok gaur bost partida jokatuko dituzte. Horiétako hiru Alegiako frontoian izango dira, 19:00etan hasita, eta beste bi Ikaztegiatan jokatuko dituzte, 20:00etan hasiko den jaialdian.

Babarrunaren Kofradiak kide berriak izendatuko ditu

XXIII. Kapituluua udaletxeko bilkura aretoan egingo dute, aurrez, herrian zehar desfilea egingo dute

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Babarrunaren Kofradiak urteko egun handia ospatuko du etzi, hilaren 12an, Tolosan. Egun guztiko egitaraua prestatu dute kofradiako kideek, eta horien artean, kofrade berrien izendapena egingo dute Zendutako hiru kide ere gogoan izango dituzte. Erabakiak XXIII. Kapituluaren barruan hartuko dituzte, udaletxeko bilkura aretoan.

↓ **Egitaraua**

OTSAILAK 12, ETZI

- **09:00.** Udaletxeko bilkura aretoan Kofradia Gastronomi-koen Federazioaren asanblada orokorra.
- **10:15-11:15.** Hainbat kofradiarekin Fronton kafetegian ha-maiketakoa, txistulariek lagunduta.
- **11:30.** Kofradien desfilea egingo dute, txistularien eta trikitilarien laguntzarekin. Herriko puntu esanguratsuenak zeharkatuko dituzte.
- **12:00.** Udaletxeko bilkura aretoan, Tolosako Babarrunaren Kofradiaren XXIII. Kapituluua

egingo dute. Besteak beste, ohorezko kofradeak izendatuko dituzte: Asier Izagirre Pasaban; Mikel Gotzon Telleria Tapia; Bidasoako Izokin Kofradia; San Bernardo Scout Taldea eta Beti Alai Jatetxea.

- **13:00.** Zizka mizkaka Tolosako elkarteetan. Ondoren, inauterietarako kontzertura joango dira.
- **14:00.** Bazkaria Fronton jate-txean, Tolosako babarruna izar dela. Laguntzeko, Beasaingo odolkia, Ibarako piperrak, aza, saiheskiak eta Idiazabalgo gazta. Ondoren, dantza saioa jate-txe berean.

Brinkola eta Tolosa arteko trenbidean, hobekuntza lanak amaituta

Erredakzioa

Espainiako Gobernuaren EAeko ordezkariak azaldu duenez, Adif-ek, trenbideetako azpiegitura administratzaileak, amaitu ditu Brinkola eta Tolosa bitarteko trenbideko hobekuntza lanak. 40 kilometroko tartean egin dituzten lanek 784.000 euroko kostua izan dutela azaldu dute ordezkariak: «Balastoa eta karrilak aldatu dira eta honen ondorioz, trenbidearen ustiapena hobetuko da. Madrid-Hendaia arteko bide honi kalitate handiagoa emanaz». Berrikuntza lanak egin diren zati hori, Renfeko aldiriko tren zerbitzuek ere erabiltzen dute. Espainiako Gobernu ordezkariak azaldu dutenez, lan hauek egiteko makineria pisutsua erabili dute.



Ander Chaparro, Imanol Lucero eta Denis Martin. HITZA

Olaederra Fight Taldeak emaitza bikainak lortu ditu

Espainiako Wushu Txapelketan, Martinek urrezko domina lortu du eta Chaparrok, zilarrezkoa

I. Garcia Villabona

Villabonako Olaederra Fight Taldeak emaitza bikainak lortu ditu Espainiako Wushu Txapelketan. Taldeko Denis Martinek urrezko

domina lortu du eta Ander Chaparrok zilarrezkoa Quin Da junior borroka modalitatean.

Denis Martinek parekotasun handiko kanporaketak irabazi ondoren lortu zuen urrezko domina. Ander Chaparrok, ordea, finalera iritsi eta gero, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Taldeko arduradunek diotenez, «azpimarratzekoa da borrokalariak erakutsi duten maila bikaina, soilik hamabost urte edukita. Hori guztia etengabeko entrenamendu gogorraren emaitza da».

Imanol Lucero Olaederra Fight Taldearen entrenatzaile eta lehendakariak bere maisu eta lagun Txuruni, Iñigo Garciari (entrenatzaile), Villabona eta Zizurkilgo udalei eta gainerako babesleei eskerrak eman dizkie, «emaitza hauek lortzeko emandako laguntzarengatik».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Villabonako Errota kalean. Interesatuek deitu 619 77 04 58 telefono zenbakira.

↓ **Kirola Tolosan**

LARUNBATA

SASKIBALOA

- 10:00.** Usabalgo beheko kantxan: emakumezkoak, Laskorain.
- 10:30.** Usabalgo goiko kantxan: Infantil mutilak, Take Aldaba-Goierrri; kadete mutilak, Triki Take-Ointxe.
- 12:00.** Usabalgo goiko kantxan: junior mutilak, Take Tolosa-Gamon; kadete mutilak, Take Tovar-Internacional.

ARETO FUTBOLA

- 12:30.** Usabalgo beheko kantxa: junior mailan, Laskorain-Egintza.
- 16:00.** Usabalgo beheko kantxa: 3. mailan, Laskorain-Eraso.

ESKUBALOA

- 16:00.** Usabalgo goiko kantxa: Kadeteak, Tolosa-Escolapios.
- 18:00.** Usabalgo goiko kantxa: Junior mutilak, Tolosa-Irun.

FUTBOLA

- 10:00.** Infantil txiki mutilak: Tolosa-Eibar.
- 11:30.** Ohorezko kadete mutilak: Tolosa-Ostadar.
- 13:00.** Infantil neskak: Tolosa-Lazkao.
- 15:30.** Preferente maila: Tolosa-Ostadar.
- 16:30.** Berazubín. Jubeniletan liga nazionala: Tolosa-Aurrera Vitoria.

MAHAI TENISA

- 11:00.** Oargi-Lautaro.
- 16:00.** Usabal-Nat Pamplona.

IGERIKETA

- 08:30etik 13:00etara.** Gipuzkoako Txapelketa jokoan infantil, junior eta senior mailan.

IGANDEA

SASKIBALOA

- 10:00.** Usabalgo goiko kantxa: mini mutilak, Take-Easo; mini mutilak, Take-Askatuak; mini neskek, Take-Iraurgi.
- 12:00.** Usabalgo goiko kantxa: senior emakumezkoak, Aralar-Internacional.

ESKUBALOA

- 12:00.** Usabalgo beheko kantxa: alebinak, Tolosa-Bidasoa.

FUTBOLA

- 09:45.** Alebin A, Tolosa-Lagun Onak, eta Tolosa-Urnieta.

IGERIKETA

- 08:30etik 13:00etara.** Gipuzkoako Txapelketa jokoan infantil, junior eta senior mailan.

Jose mari jatetxea

Itxarritan menu bereziak

Etorri!

Lehen menua	Bigarren menua
Angula freskoak	Tolosako babarrunak
Baserriko oiltsakoa	Lenguado "menière"
edo txuleta	edo baserriko
Postrea	oiltsakoa
Kafea	Postrea
Crispa rioja edo sagardoa.	Kafea
	Crispa rioja edo sagardoa
60€	27€

Erreserba egokia deitu
949682047 Oñak 11,12. Lizartza Baserriak.
Lizartza Oñak 10-13, 21. urte. Tolosa Baserriak

Sindikatuak positiboki baloratu dute lanuzteek izan duten erantzuna

Tolosaldeko udal gehienetan egin dute bat grebarekin; Tolosan eta Villabonan erabateko parao egin dute

Rebeka Calvo

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak oso pozik agertu dira atzo sektore publikoan deitutako lau orduko lanuzteek izandako erantzunarekin. HITZAn aurreratu bezala, Tolosaldeko udal gehienetan egin zuten bat greba deialdiarekin, eta Tolosa eta Villabonako udaletan, esaterako, erabateko lanuztea egin zuten.

Hori udalei dagokionez, izan ere, zerbitzu publiko guztietan egin zuten deialdia sindikatuak, eta beraz, zuzenbidean, irakaskuntzan, Osakidetzan, erakunde zein enpresa publikoetan, eta Estatuko Administrazioan ere egin zuten greba deia. Hauen inguruan aipatu sindikatuak gustura azaldu dira jarraipenarekin. Zu-

zenbidean «inoiz izan den erantzun zabalena» izan zuen grebak, hau da, %65koa, eta irakaskuntzan irakaskuntza ez unibertsitarioan eta haur eskoletan %70tik gorakoa. Ikastoletan ere %70tik gorak egin zuten bat lanuzteekin.

Osakidetza dagokionez, «azken urteotako mobilizaziorik handiena izan dela» esan zuten sindikatuak. «Eragina izan du esparru ezberdinetan, lehen arretan nahiz ospitaleetan, nahiz eta zerbitzu minimoak gehiegizkoak izan. Aipatzeko da aspaldiko

partez gaur bai, gaurkoan greba jarraipen datuak ezkatuzko azpizokioan, bajak bete dituztela», esan zuten.

Erakunde eta enpresa publikoetan lanuzteak «garrantzitsuak» izan zirela argitu zuten sindikatuak, eta Estatuko Administrazioan «erantzuna apalagoa» izan zen.

«Jasotako erantzunak murrizketan kontra borrokan jarraitzeko indarra ematen digu eta horretan jarraituko dugu», esan zuten sindikatuak.



Iurako Udaleko langileek bat egin zuten lau orduko greba deialdiarekin.

Irudia Villabona



PINTXO POTEA, OSTEGUN ILUNTZERO

Villabonako 16 tabernatan azkenaldian geroz eta toki gehienetan egiten ari diren pintxo pote ekimena egiten hasi dira. Ostegunetan egiten dute, 19:00etatik 21:00etara, eta honi esker urteko ardo edo zuritza, eta pintxo eder bat jateko aukera dute bezeroek euro baten truke. Taberna guztiek

ez dute eskaintza bera, baina normalean pintxo bat baino gehiago izaten da aukeran. Hauek dira tabernak: Iru Aldeta, Erreka, Xiker, Arnasa, Uztargi, Maxola, Xaldu, Zentroa, Urrizpe, Or konpon, Obaba, Iratzar, Txapeldun, Shepper's, Itzalpe eta Errebote. A. IMAZ

Amarotz elkartekoak gustura merkatu txikiak orain arte izan duen harrerarekin

R. C. Tolosa

Amarotz auzo elkarteak azaldu duenez, kutur etxean jarri duten merkatu txikiak bisitari ugari izaten ari da, eta salmentak oso ondo doaz. Berezik, mozorroen salmenta aipatu dute; «jende

asko etorri da mozorroen bila, eta oso gustura gaude».

Merkatu txikia iganderarte egongo da zabalik Tolosako kultur etxean, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara, eta gaurtik aurrera, gainera, egositako txorizoa ere erosi ahal izango

dela azaldu dute auzo elkarteko kideek.

Merkatu txikiko arduradunak tolosar guztiak animatzen dituzte merkatu txikira joan eta zerbait erostera, horrela Nikaraguko emakuentzat dirua bildu ahal izateko.

Et Incarnatus Orkestra Antony Hegartyrekin ariko da Jazzaldian

Zeberio tolosarrak zuzentzen duen taldeak eta kantariak 'Cut the World' emanaldia eskainiko dute

R.C. Tolosa

Migel Zeberio tolosarrak zuzentzen duen Et Incarnatus orkestra Jazzaldian izango dela jakinarazi dute jaialdi donostiarreko arduradunek. Taula gainean berrogei musika tresna inguru bilduko dira, baina ez dira bakarrik egongo, izan ere, Ingalaterran jaio eta New Yorken (AEB) bizi den Antony Hegarty kantaria izango dute bidelagun.

Jazzaldiko arduradunek ez dute zein egunetan joko duten zehaztu, baina bai jaialdia uztaila-

ren 19an hasi eta 23an amaituko dela.

Orkestrak eta kantariak *Cut the World* emanaldia eskainiko dute. Bertan Antony Hegartyren lau diskoetako kantua eskainiko dituzte, eta Nico Muhlik, Rob Moosik eta Maxim Mostonek egindako konponketa sinfoniko ez jantzita kantatuko ditu. Ikusizun handia izango dela aurreratu dute Jazzaldiko arduradunek, eta taula gainean argi bereziak eta diseinu berritzaileak ikusi ahal izango direla.



YOANNA GERCIU

Laburrak

Keu Agirretxe entzuteko aukera gaur, Errotan

TOLOSA › Gaur Errota tabernan, 23:00etan, Keu Agirretxeren emanaldia izango da. Keu Agirretxe gitara jotzailea da, eta luzaroen gitarrista gisa soilik ezagutu bada ere, aspaldi hasi zen konposatzen eta hori guztia jendaurrean erakusten. Errotan formatu akustikoan ariko da.

Inauterietako kantak gaur gauean, Bonberenean

TOLOSA › Bonberenean gaur, inauterietako kantu afaria egingo dute 21:00etan. Sarrerak 8 euro balio du eta bertan izango dira Ander Arostegi tronpeta jotzailea, Jon Arruabarrena saxo jotzailea, Aitzol Moneo tronboian, Antton Telleria batearian, Juantxo Zeberio pianoa jotzen, Itsaso Etxebeste baxuan eta Xabier Telleria.

165 zenbakia da Altzoanen zozketaren irabazlea

TOLOSA › Altzoan guraso elkarteak Esna-bidean erakusketa-ekin batera Tolosako Ikatzeta tabernan pintxo afari bat zozketatuz txartelak atera zituen. Zenbaki sariduna 165 izan da, eta saridunari elkarteak kideren batekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Udalak aurrekontuak aurkeztuko ditu

IBARRA › Ibarra Udalak jakinarazi duenez, 2012ko aurrekontuak onartu aurretik, herritarren aurrean aurkeztu nahi ditu. Astelehenean, hilak 13, egingo dute, 19:30etik aurrera, udaletxeko pleno aretoan. Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bileran parte hartzera. Bertan aurrekontuen inguruko informazioa azalduko dute eta herritarrek dituzten zalantzak edo kezak argitzen eta erantzuten saiatuko direla esan dute.



Idoia Gobantes

- Elikagaien Zientzia eta Teknologian doktorea EHU unibertsitatean. Kolegiatu zenbakia: 2101
- Giza Elikadura eta Dietetikan diplomataua.



ELIKADURA HEZKUNTZA ETA DIETETIKA AHOIKULARITZA

- Elikagai ohiturak hobetzeko helburuz, elikaduraren ikuspuntutik aholkatzea.
- Umeak, gazteak, helduak eta adinekoak, haurdun dauden emakumeak, edoskitzea, menopausia, pisuaren gainbegiratzea, kirolariak, dietoterapia (patologiak).

Hitzordua eskatzeko:

ZAINBERRI

Rondilla kalea, 6 • Tolosa • 943 65 21 86

Etxebizitza tasatuak egin nahi ditu udalak, eta izena emateko deia egin du

Altzon hamabi etxebizitza tasatu egingo dituzte; udalak herritarren beharrei erantzun nahi die

Eneritz Maiz Altzo

Hamabi etxebizitza tasatu eraikiko dituzte, Altzon. Udalak urtaririlaren 31n egindako osoko bilkuran, Altzo Muñon eraikiko diren etxebizitza tasatuei buruzko ordenantza arautzailea onartu zuen.

Hamabi etxebizitza tasaturen jabe izan daitezkeen interesatuaren lehenengo zerrenda osatua du Altzoko Udalak. Zerrenda horretan izena emana dutenek, lehentasuna izango dute. Hala ere, udal ordezkariak, bigarren zerrenda bat osatu nahi dute, baina hala eta guztiz ere, interesa dutenei izena emateko deia luzatzea erabaki dute. «Lehenengo zerrendaren itxaron zerrenda gisa erabiliko dugu. Hamabi lagunek eman zuten izena, baina bateren bat atzera botatzeko arriskua ere egon daiteke», esan du Kepa Uzkudun hirigintza zinegotziak.

Halaber, osoko bilkuran onartutako ordenantza hogeita hamar eguneko epean jendaurreko



Altzo Muñoko etxeen ondoko belazean eraikiko lirateke; oraindik zein aldetatik hasi zehaztea falta da. E. MAIZ

erakusketan jarrita egongo da. Interesatuak alegazioak jartzeko aukera izan dezaten.

Honenbestez, eta hilaren 29a arte, etxebizitza tasatueta interesa dutenek izena emateko aukera izango dute. Altzotarrei eta alztotarrak ez direnei egiten diete izena emateko deia, hau da, Altzon eraikiko diren etxebizitza tasatueta interesa duen edonork izango du aukera. Udaletxean eman beharko dute izena; bertara bulego orduetan joanez edo 943 65 24 13 telefono zenbakira deituz.

Onartu berri duten udal ordenantzan, lehentasuna alztotarrak izango dute edota lotura izan dutenek, baina ondoren eskualdekoek izango lukete lehentasuna.

Aurreko legealdian ia onartuta utzi zituzten herriko arauak. Bilduko hautetsiek, udaletxera sartu eta hilabete gutxira azken onarpena eman zieten. Udalak hitz egin du lur jabeekin, eta «ados agertu da etxebizitzak herriarren beharrik beteko dituztelako», nabarmendu du Uzkudu-

nek. Bi lur sail daude araututa elizaren azpiko aldeko lurretan. Altzoko Muñoko etxeen jarraipena izango dira. Arauen arabera, etxebizitza tasatuz gain, libreak egitea ere aurrekusten dute.

Herriaren beharretara

Kepa Uzkudun zinegotziak dioenez maileguak ez dituzte erraz ematen, «baina espero dugu arazorik ez izatea. Eta herritarrei animatzeko deia luzatu nahi diegu». Herritarrei zerbitzua eman nahi die, «etxebizitzak ez ditugu

↓ 12 etxebizitza

IZENA EMATEKO AUKERA

- **12.** Etxebizitza tasatu egin nahi ditu, udalak.
- **Epea.** Hilaren 29a, asteazkena, bitartean eman behar da izena.
- **Nork.** Nahiz eta alztotarrak lehentasuna izan, Alztotik kanpo bizi direnek ere eman dezakete izena.
- **Non.** Altzoko udaletxean: bertara joan da, edo 943 65 24 13 telefono zenbakira deituz.

egiteagatik egin nahi. Herritarrei herrian bertan etxea izateko aukera eskaini nahi diegu», gaineratu du Uzkudunek.

Etxebizitza tasatuen salneurria 200.000 euro ingurukoa izango da, eta garaje itxia barne izango dute. Hau udalak zehaztu du, eta eraikitzaile enpresaren bat sartzeko modukoa delakoan daude. Etxebizitzaren neurria eta lekua zehaztu gabe daude oraindik: «Arauetan bi lur sail daude araututa, eta zein zatitan egin, hori lur jabeak erabaki beharko du eraikitzaile enpresarekin batera».

Proiektua aurrera atera dadin, udala laguntzeko dagoela gaineratu du. Bi aldeek, sei hilabeteko epea izango dute erabakiak behar bezala hartu daitezzen.

Hala ere, hamabi etxebizitzek sarrera, sukaldea, egongela, bi komun, hiru logela eta balkoia izango lituzkete. Eta baita garaje itxia ere.

o alegaldea@hitza.info

Sokaren bueltan dantzan ospatuko dute eguna, bihar

Anoetarrek 08:30ean emango diote hasiera Dantza Soka Egunari; aurten neskek egingo dute dantza 12:30ean

E. Maiz Anoeta

Bihar, hilak 11, Dantza Soka Eguna ospatuko dute, Anoetan. Urtero bezala, kaldereroetan ospatzen dute herriko jai hau. Hogeita hamar urtez galdutako festa hau, 2003. urtean berreskuratu zuten, eta harrez gero urtero ospatzen dute. Iaz lehen aldiz, dantza goizez bakarrik egitea erabaki zuten, eta aurten ere horrela egingo dute.

Egunari hasiera goizean goiz emango diote. 08:30ean dute hitzordua, eta guztiak herriko plazan elkartu ostean, baserri base-ri ibiliko dira dantza, musika eta umore ona zabalduaz. Behin landa gunea pasa ondoren, 12:30ean, berri, herriko plazan elkartuko dira. Baserri baserri ibilitako tal-

deaz gain, herritarrez beteko da plaza. Txistu doinuei jarraituz, sokaren bueltan egingo dute dantza. Aurten, herriko neskek izango dira protagonista, eta beraiek dantzatuko dute.

Behin dantza saioa bukatuta, eta ohiturari jarraituz, 14:00etan, babarrun jatea egingo dute Kuku elkartearen. Behin tripa bapo bete eta indarrak hartuta, kalejirari ekingo diote, poteoa ibiltzeko. Horretarako, herriko trikitilariak izango dituzte lagun.

Ondoren, Anoetako dantza taldeko gaztetxoek txanda izango da. Beraien emanaldia eskainiko dute, plazan. 19:00etan, erromeria izango da Itzel taldearekin. Antolatzaileek jakinarazi dute, taloak egingo direla hurbiltzen diren guztientzat.

Iaz eurpean busti-busti eginda egin behar izan zuten dantza, ea aurtengoaen eurriak festa ez duen zapuzten. Eguraldi hotzak jarraitzen badu ere, txistuaren erritmoa dantza eginez tenperatura baxuei aurre egingo diote anoetarrek.



Egurdiko dantza saio guztia eurpean egin behar izan zuten dantzariak, iaz. E. MAIZ

↓ Dantza Soka Eguna

HILAKTI, BIHAR

- **08:30.** Plazan elkartuko dira baserrietara joateko.
- **12:30.** Plazan egingo dute dantza. Aurten nesken txanda izango da.

- **14:00.** Babarrun jatea egingo dute, Kuku elkartearen.
- **18:00.** Kalejira eta poteoa egingo dituzte herriko trikitilariak.
- **Ondoren.** Anoetako dantza taldeko gaztetxoek, beraien

- emanaldia eskainiko dute, herriko plazan.
- **19:00.** Erromeria Itzel taldearekin izango da.
- **Oharra.** Aurten ere, taloak egingo dira gerturatzen diren guztientzat.

Torturaren Aurkako Eguneko ekitaldi nagusia Zizurkilen izango da

Joxe Arregi zizurkildarraren heriotzaren XXXI. urteurrena otsailaren 13an, astelehenean, izango da

Anoetan, Ibarren eta Villabonan ekitaldiak antolatu dituzte ondorengo egunetan

Asier Imaz

Erlantz Urtasun historialariak, *Berria* egunkarian, otsailaren 13ari buruzko idatzi bati sarrera hau jarri zion: *Joxe Arregi zizurkildarra zen, bertsolaria. Honela idatzi omen zion amari, jada etxetik kanpozebilela: «Ama batentzat izan behar da momentu hau nahiko latza/ egun guztia tristuraz eta/ gaur berriz oso beltza/ zuretzat pozik haundiena/ zure ondoan banitza/ lasaitu zaitte, poztu barrena/ pasako baita ekaitza». Ekaitza, baina, ez zen baretu.*

Joxe Arregi 1981eko otsailaren 13an hil zen Carabancheleko ospitalean, jasandako torturen ondorioz.

Zizurkildarraren heriotzaren urteurrenean, otsailaren 13an, Torturaren Aurkako Eguna ospatzen da Euskal Herriko hainbat herritan, baita eskualdean ere. Astelehenean, 31 urte beteko dira zizurkildarra Espainiako poliziak egindako torturen ondorioz hil zela, Carabanchelgo espetxean. Gertakari hori gogoan izango

dute bere jaioterrian igandean eta astelehenean, hainbat ekitaldi antolatu baitituzte.

Torturaren Aurkako Eguna antolatzaileen esanetan, «tortura errealitate bat izan da Euskal Herrian urte luzeetan. Milaka izan dira, bere militantzia politikokoagatik eta ideia batzuen aldean egiteagatik, tortura bere larriuan sufritu behar izan duten euskal herritarrek. Badira ere espainiar polizia etxe ilunetan heriotzara arte torturatutako izan direnak, hortxe dugu Joxe Arregiren kasua. Espainiar estatutako tortura sistematikoki erabili du herri honen aurka, komeni zaienezan torturatuz, eta ez denekomeni ez torturatuz, baina euskal herritarrok beti torturaren itzal luzea inguruan izan dugu».

Antolatzaileen esanetan, «tortura etekin politikoak lortzeko erabili izan du Espainiako estatutak, euskal disidentzia zigortu, zapaldu, umiliatu eta beldurtzeko». Horrez gain, euren ustez, «torturaren erabilera posible izan da polizi, polizi buru, atxilo aldiko

mediku, epaile, gobernu buru eta Espainiako alderdi politiko 'demokratikoen' babesarekin. Horren adibide dugu, aste honetan Portu eta Sarasola torturatu zituzten Guardia Zibilak absolbitu izana. Nazioartetik abisu bat baino gehiago eman zaion arren, Espainiako estatutak beste aldera begiratu izan du beti».

Torturaren Aurkako Eguna antolatzaileek argi dute inkomunikazioak «ahalbideratu duela tortura», eta Espainian oraindik indarrean direla bai lege antiterrorista eta baita inkomunikazioa ere: «Horrek, tortura kasu berrietea irekirik uzten diela argi dago. Beraz, torturaren amaitzeko lehen pausua, inkomunikazioarekin amaitzea da».

Euskal Herrian martxan dagoen aro berrian ezinbestekotzat ikusten duten lanean jarraitzea, «berriro tortura kasurik gerta ez dadin. Horregatik, otsailaren 13an, Torturaren Aurkako Eguna izanik, ekimen ezberdinak antolatu dira eskualdean». Ekitaldi nagusian Zizurkilen egingo dute, eta herritar guztiei bertara joateko deialdia luzatu diete. Anoeta eta Villabonaren kasuan, *Garzonen protokoloa. Tortura Euskal Herrian* dokumentala ikusteko aukera egongo da. Ibarren, aldiz, elkarretaratzea egingo dute otsailaren 13an, kultur etxearen aurrean.



Arregik jasandako torturak salatzen argazki hauek jarri dituzte. HITZA

↓ Egitaraua

OTSAILAK 10, GAUR

Anoeta

■ **19:30ean.** Auditorioan dokumental emanaldia: *Garzonen protokoloa. Tortura Euskal Herrian*.

OTSAILAK 12, ETZI

Zizurkil

■ **09:00etan.** Pedro Mari Otano plazatik abiatuta mendia martxan irtengo dira Haizetsuara.

■ **13:00etan.** Joxe Arregi plazan ekitaldia.

OTSAILAK 13, ASTELEHENA

Ibarra

■ **19:00etan.** Elkarretaratzea kultur etxe parean, *Torturarik ez! Inpunitatearekin amaitu!* lelopean.

Villabona

■ **19:30ean.** Udaletxeko erabileran anitzeko gelan *Garzonen protokoloa. Tortura Euskal Herrian* dokumentala.

Zizurkil

■ **19:00etan.** Hilerrian lore eskaintza.

Mikel Goñi eskualdeko bi gazteren aurka, Ibarren

Alperrak eta Aitor Esnaola presoaren lagunek antolatu dute bihar, 18:00etan, hasiko den pilota jaialdia

A. Imaz Ibarra

Mikel Goñi pilotariak partida jokatuko du Ibarren Belabieta kiroldegian, bihar, 18:00etan. Goñiren aurkariak eskualdeko bi gazte izango dira: Inaki Errazkin eta Julen Urruzola.

Sarrerak 5 eurotan daude salgai Ibarren Zubiaurre eta Karlatz tabernetan, eta Asteasuko Iturri-ondo jatetxean.

Mikel Goñi eta eskualdeko bi gazte arteko partidaren aurretik, hurren partidak jokatuko

dira, eta lagunarteko beste partida bat ere lotzen ari dira antolatzaileak, baina hau oraindik ziurtatu gabe dago.

Larunbateko pilota jaialdiaren antolatzaileak Ibarrenko Alperrak koadrila eta Aitor Esnaola euskal presoaren lagunak dira. Mikel Goñi eurek ekarriko dute Ibarra, Alperrak koadrilako kide baten bitartez, izan ere, oronoztarra ibartarraren laguna da. Harreman horri esker, Goñi ikuskizun aparta ematera etorriko da Belabieta pilotalekura.

18:00etan hasiko den partida honen arrazoiaz galdetuta, antolatzaileek pilotariaren maila azpimarratu nahi izan dute: «Mikel Goñi aurten izugarriko maila ematen ari da, topera dago, eta gure kide baten laguna izanik, aukera aprobetxatzea erabaki ge-

nuen. Berarekin hitz egin eta inongo arazorik ez zigan jarri, gustura etorriko zela esan zigun, eta gauzak horrela, jaialdia antolatzea erabaki genuen».

Bere aurkariak Tolosako Inaki Errazkin eta Asteasuko Julen Urruzola izango dira. Gazteak izan arren, pilota munduan ibiliak biak, urrutira joan gabe, Julen Urruzola Euskal Herriko Txapelketa jokatzen ari da.

Antolatzaileek argi zuten Goñiren aurkariak eskualdeko gazteak izan behar zutelako, «modu horretan, partidak hurbiltasun hori edukiko du, eta giro aldetik ere politagoa izango dela uste dugu».

Jai giroan edo serio, pilotaz gozatuko aukera egongo da Ibarren bihar, eta batez ere, Mikel Goñi pilotariaren jokoarekin gozatuko.



Mikel Goñi eskualdeko bi gazteren aurka jokatuko du partida, bihar. HITZA



GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	4°
HOTZENA	-3°


Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa:
943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I.
Elbarren, 95.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I.
Euskal Herria, 3.
Telefonoa:
943 67 09 15.
■ **Leitza.** Larraia, M.I.
Elbarren, 95.
Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa:
943 65 46 10.
■ **Leitza.** Larraia, M.I.
Elbarren, 95.
Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa:
943 67 01 28.
■ **Betelu.** Carrillo, A.
Kale Nagusia, 5.
Telefonoa:
112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M.
San Martin, 5.
Telefonoa:
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



23 PARTE HARTZAILE PIANO JAIALDIAN

Tolosako udal musika eskolako 23 pianista aurkeztu ziren Andoinen urtero egiten duten piano jaialdia. Banakakoan Ane Silvia Torres, Koldo Arzalluz, Martin Ibarbia, Unai Nazabal, Irene Plazaola, Jon Ayuso, Ixone Azkue, Lydia Justo, Alvaro Martin, Tammily Orostegui, Irene Amantegi, Irati Arroyo, Jone Belza, Laida Dominguez, Marta Etxeberria, Iker Garmendia eta Jon Eusebi Hidalgo aritu ziren; eta binakakoan, Ainhoa Gauna eta Amaia Ulazia, Nerea Brusau eta Naia Vazquez, eta Ainhoa Garikano eta Oihana Olano. Sari ugari eskuratu zituzten eta eskolak denak zoriondu nahi izan ditu. HITZA

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Ahozko Lantegia gaur goizean, Leidor aretoan.

KALDEREROAK

■ **Tolosa.** Gaur 20:00etan, musika eskolako ikasleen emanaldia Leidorren.
■ **Anoeta.** Gaur elkartuko dira plaza, 18:00etan.
■ **Ibarra.** Gaur irtengo dira 18:00etan plazatik, kalejiran.
■ **Irura.** Gaur 18:00etan hasiko dute kalejira Kulturunetik abiatuta. Ondoren, merienda.
■ **Zizurkil.** Gaur 15:00etan Otaño ikastetxetik abiatuko dira kalejiran, herrian barrena ibiltzeko.

tuta, kaldereroen konpartsa plaza Zaharrean elkartuko da udaletxetik pregoia irakurtzeko; 19:15ean konpartsa kalejiran irtengo da; eta 23:30ean Incanables txaranga kalez kale.

INAUTERIAK

■ **Berastegi.** Gaur 14:30etik 16:00era, gaztetxoan kalejira. Bihar, 17:00etan, herriko dantzari txikien emanaldia, plazan; ondoren, txokolate jatea; 19:00etan, triki-poteoa; eta 21:00etan, herri afaria aparkaleku azpiko lokalean.
■ **Lizartza.** Gaur 14:15ean, eskolak antolatuta, mozerro festa; eta ondoren, kalejira. Bihar

07:00etan plazan elkartu eta kalejira; 07:30ean puska biltzea; 09:30ean Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko; 12:00etan mozerro, gurdi eta txaranga; 13:30ean kalejira Arrateko zubitik; ondoren, bazkaria frontoian; eta 18:00etan, gurdi eta mozerroak Joxe Mari-ko aparkalekutik plazara. Igan-dean 11:00etan agintari eta dantzariak aterako dira; ondoren, hamaiketako plazan; 12:00etan dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozerro eta gainerakoekin batera; 13:00etan Lizartzako inauterietan dantzak; 14:00etan bazkaria; eta 20:30ean *ijitoa* errez amaituko dituzte jaiak.

Agurrak



Urte askoan!

Courtney (Alegia). Igandean 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat, familia osoaren partetik.



Urte askoan!

Aratz eta Manex (Bidania). Igandean 5 urte beteko dituzte. Muxu pottolo bana etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**